



EBAZPENA, DESKARBONIZAZIOKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ EAE-KO TRANTSIZIO ENERGETIKOKO ETA ALDAKETA KLIMATIKORAKO HERRITARREN BATZARRA ARAUTZEKO KONTSULTA PUBLIKOA EGITEN BAITA, XEDAPENA BERA LANDU BAINO LEHEN.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua arabera, arau-xedapenen proiektuak prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek.

Kontsultak alderdi hauek jaso behar ditu:

- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- Arau hori onestea beharrezkoa eta egokia den.
- Arauren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatuak eta ez-erregulatuak.

Hori dela-eta, xedapena egin baino lehen aurretiazko kontsultaren izapidea bete nahi da, arauak ukitzen dituen herritarrek eta erakundeek parte hartu ahal izan dezaten eta ekarpenak egin ahal izan diezazkieten planteatu den arauari.

Hori dela eta, kontsulta:

- Zabalik egongo da etorkizuneko arauak uki ditzakeen instituzio publiko eta pertsona fisiko guztientzat, nahiz organizazio, entitate edo elkarteentzat.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren webgunean argitaratuko da.
- Hamar egun balioduneko epea ezarriko da ukitutako instituzioek, herritarrek eta beren entitateek egokitzen jotzen dituzten iradokizunak eta oharrak aurkez ditzaten.

Kontsulta publikoaren izapide hori da, beraz, une honetan garatzen ari garena, aurreikusitako legezko egiturari jarraikiz. Gainera, kontsulta-izapide hau arau-proiektua idatzi baino lehenago eta xedapen orokorrak egiteko "Prestaketa" fasearen barruan egingo da, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren abenduaren 30eko 6/2022 Legean aurreikusitakoa.





Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EAEko Trantsizio Energetikoko eta Aldaketa Klimatikorako Herritarren Batzarra arautzeko xedapen orokor baten proiektuaren kontsulta publikoa egitea, xedapena bera landu baino lehen.

Bigarrena.– Arauak ukitutako herritarrek eta entitateek, horrenbestez, agindu honen eranskinean jasotako alderdiei buruz duten iritzia helaraz dezakete hamar egun balioduneko epean, agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren eguna.

**GUILLERMO ALLENDE ARANGUIZ
DESKARBONIZAZIOKO ZUZENDARIA**

ERANSKINA

1.– Ekimen honekin konpondu nahi diren arazoak.

Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legearen 12. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzak EAEn Herritarren Batzar bat eratu behar du, trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren arloan hausnarketa eta ezagutza kolektiboa sortzeko foroa izango dena. Batzarrak herritarrei aukera emango die informazioa jasotzeko, eztabaidatzeko eta adostasunak lortzeko klima neurtasunera lehenbailehen iristeko eta Euskal Autonomia Erkidegoa erresilienteago bihurtzeko behar diren transformazio handien konponbideei buruz, ikuspegi bidezko eta solidarioan.

2.– Araua onartzeko premia eta egokiera.

Otsailaren 8ko 1/2024 Legeak berak zehazten ditu Euskadiko Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Herritarren Batzarraren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautuko duen dekretua onartzeko beharra eta egokitasuna; hain zuzen ere, lege horren 12. artikulua aurreikuspen hori ezartzen du Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 19. artikuluan adierazitako esparruan, “Herritarrek eta elkarteek parte hartzeko gune egonkorak” izenekoei dagokionez.

Dekretu bidez arautuko da Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Herritarren Batzarraren osaera, antolamendua eta funtzionamendua, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 19. artikuluan edo lege horren ordezkoko arauan ezarritako esparruan.

Batzarraren osaerak berdintasun-printzipioa errespetatu beharko du, eta hori zozketa geruzatu baten bidez bermatuko da, funtsezko aldagai soziodemografikoei dagokienez, hala nola, sexua, errenta edo lanbide-kualifikazioa.

3.– Egin nahi den arau-proiektuaren helburuak.

Landu nahi den dekretuak helburu hauek ditu:

- EAeko Trantsizio Energetikoko eta Klima Aldaketako Herritarren Batzarraren funtzionamendua inspiratu behar duten printzipioak eta bermeak garatzea, otsailaren 8ko 1/2024 Legearen 12.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Artikulu horren arabera, batzarraren funtzionamendua printzipio hauen arabera izango da: “ordezkaritza, inpartzialtasuna, independentzia, gardentasuna eta informazioa eskuratzea”.
- Batzarraren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzea, Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundeak herritarren parte-hartzeari buruz emandako jarraibideei jarraituz. Jarraibide horiek jardunbide egokien bederatzi printzipiotan oinarritzen dira, kalitatea ziurtatzeko: argitasuna eta inpaktua, konpromisoa eta kontuak ematea, gardentasuna,



inklusioa eta irisgarritasuna, osotasuna, pribatutasuna, informazioa, baliabideak eta ebaluazioa.

- Batzarraren funtzionamendua ziurtatuko duen eta haren diseinuan, ezarpenean eta jarraipenean esku hartuko duen gobernantza ezartzea.
- Batzarraren bidez herritarren parte-hartze prozesua arautzea: herritarren ekarpena diseinatu, planifikatu, ezarri eta erabiltzea, atzeraelikadura, ebaluazioa.

4.– Bestelako irtenbide alternatiboak.

Aurreko ataletan azaldutako inguruabarrak direla-eta, ezinbestekoa da dekretu-proiektu hau egitea, ez baita bestelako irtenbiderik ikusten.